

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Adela Telleria Gallastegui

*Eibar,
Gipuzkoa
(1924)*

Aurkibidea

Biografia



Zintak

EIB-661

- **Proiektua:** Eibarko ondare industrialak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2017-10-19
- **Iraupena:** 77 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

EIB-668

- **Proiektua:** Eibarko ondare industrialak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aparicio Azpilicueta, Mikel - Gaston Balerdi, Izaskun
- **Data:** 2018-03-15
- **Iraupena:** 65 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

EIB-694

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2020-01-29
- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Alejandro Telleria osaba, Timoteo Zubiate aitaginarreba

- **Erref:** EIB-661/002
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:02:53. **Bukatu:** 00:04:34

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Eibartar peto-petoa da Adela. Ardantza kaleko 3. zenbakian jaio zen 1924. urtean. Gurasoak ere eibartarrak zituen. Alejandro Telleria (Eibarko "alkate txikixa" 1931-1934 urte bitartean) osaba zuen eta Timoteo Zubiate (1931. urtean, Primo de Riveraren diktadura garaian Eibarko alkate izan zen hilabete batzuetan) aldiz aitaginarreba. Nahiz eta kontrako alderdietako kide izan, ondo konpontzen zirela kontatzen du.</p>

Transkripzioa

Ni eibartarra naiz, "Ardantza tres, tercero" jaixotakua. El 7 de Junio de 1924. 93 urte.

Nere aitta eta ama, bixak ziran eibartarrak. Nik euki neban tio, Alejandro Telleria, nere tio zan, "alkate txikixa", bai.

Ta, nere suegrua Timoteo Zubiate.

Bai, nere semiak daukez apelliduak alkate birenak, Zubiate Telleria.

Bai, errepublika garaian. Ta nere suegrua izan zan erregiak. Laga eban

Timoteok, eta nere suegruak hartu eban. Eta bixak bizi ziran "Dos de Mayon", hor badao ba bederatzi eurugaittik eta hor denda bat, hantxe bizi ziran. Bixak etxe batian.
Bat ezkerrekua eta bestia eskumakua.
Ondo eruaten ziran.

2. Timoteo Zubiategi eta Toribio Etxebarriak harreman estua

- **Erref:** EIB-661/003
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:04:34. **Bukatu:** 00:05:20

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Timoteo Zubiategiaren eta Toribio Etxebarriaren arteko harremana oso estua zela gogoratzen du. Timoteoren seme gazteenarekin ezkondu zen Adela, Felix Zubiategiaren, alegia.</p>

Transkripzioa

Ondo, ondo. Gaiñera, nere suegrua oso ondo konpontzen zan Toribio Etxebarriekin. Harekin euki eban korrespondentzia. Ni ezkondu nintzan Timoteon seme gaztuenekin. Hari hil jakozen gerran bat, 23 urtekin eta gero gripiakin, el año 51, gripiakin beste seme bat 37 urtekin. Bata Conrado ta bestia Felipe.

3. Ardantza kaleko Arizmendi txokolategia

- **Erref:** EIB-661/005
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:05:55. **Bukatu:** 00:08:10

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Ardantza kalea nolakoa zen oso gogoan dauka. Bere jaiotetxea zegoen lehenengo, aurrerago zegoen "Dos de Mayo" kalera pasatzeko tunel moduko bat ere gogoan dauka eta, nola ez, Arizmendi txokolategia. Txokolategia egiteaz gain, azukre-koxkorak ere egiten zituzten bertan. Leihotik begira ordu asko pasatzen zituztela kontatzen du.</p>

Transkripzioa

Ardantza zan, ba, sartu eta gero aldaparatxo bat eguan, halantxe sartu ta aldaparatxo bat eta trenbidia. Ta han eguazen hemendikaldetik nere etxia lehelengo, ta gero eguan tunel modukua ta han gero eguan beste etxe bat. Bueno, han eguan piso bat. Ta gero eguan txokolaterixia, Arizmendi. Lehelengo Arizmendi. Txokolateria eitten eben eta azukarilluak. Ha etxia raru zan. Handik sartzen zan peora batetik eta etxe bat eguan Ardantzara emoten ebana eta gero beste bat eguan Dos de Mayora, ostetik. Ostia esaten gentsan Dos de Mayoko behekoa, gero han etxe batzuek zelan eguazen, ba haxe ostia esaten gentsan. Ba, haraxe emoten eban horrek.

Baina, lehelengo pisora sartzen zan, bai batera ta bai bestera, hortik, tuneletik edo hortxetik sartzen ziran. Txokolaterixia, bai. Txokolatia itten zeban ta azukarilluak. Gu ikusten azukarilluak eitten. Ta zan gauza bat, papelak ipintzen zittuen halan, “esiak” eitten ta hantxe azukria edo ta saltoka ibiltzen zan ta gu bentanatik ikusten, neu behintzat, ze hara lehelengo pisora asko juaten nintzan. Ze nere etxera, hirugarrenera igo bihar neban ta ha lehelengoa. Ta halaxe eoten nintzan begira ta “han, badao hor!”

4. Ardantza kalea nolakoa zen

- **Erref:** EIB-661/007
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:08:48. **Bukatu:** 00:10:59

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

<p>Aulestiarte etxearen aldamenean iturria zegoen, baina gaur egun dagoenarekiko desberdin kokatuta. Adelaren etxea, txokolategia, Aulestiarte, ortuak eta trenbidea zeuden Aldatze kalearen alde batera, eta bestera, Urizarreneko etxea, Okamika eta Zubizarretatarren etxea zeudela gogoratzen du.</p>

Transkripzioa

Ha zan etxia Aulestiarte. Ta gero eguan, itturrixa. Oĩñ dago itturrixa hala, ta orduan eguan hala, horko paretian eta han eguazen Elosuneko ortuak eta gero, trenbidia. Oĩñ dago aldamenian, orduan eguan parera. Ta gero han eguazen, paretan azpitan banko batzuek eta gero eguan errebueltan etxe bat. Han bizi izan ziran... bueno, asko. Ta gero Urizarreneko etxia. Gero eguan beste etxe bat, han bizi ziran txokolaterua ta beste batzuk pe bai. Ta gero beste bat, han bizi ziran, zelan ziran,... Okamikanekuak, bai. Paskual Okamika. Ta gero beste etxe bat; han bizi ziran behian Okamika ta goixan Zubizarreta. Ha beste etxia ein eben gerora, ha etxe barrixa zan, eta han bizi ziran Elosunekuak ta ya gero trenbidia zan. Ezkerretara eguazen, esan detsutenak: neria, txokolaterixia, Aulestiarte eta gero ortuak.

5. Ur "ona" ematen zuen iturria

- **Erref:** EIB-661/009
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:11:13. **Bukatu:** 00:13:08

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Trenbidearen parean, "ur ona" ematen zuen iturria zegoen. Ardantza kalean, etxetik gertuago, ur epelagoa ematen zuen iturri bat ere ba omen zegoen. Urrutiraino joan nahi ez eta handik ekarritako urari etxean segituan antzematen ziotela kontatzen du. Mojen etxearen aldamenean ba omen zegoen hirugarren iturri bat, baina hango ura are beroagoa irteten zela kontatzen du. Ubidea ez zegoen batere sakon lurperatuta antza.</p>

Transkripzioa

Gero han eguan, kantoian eguan itturrixa. Trenbidian pare-parian, itturrixa ta ha zan ur ona. Haraxe juaten giñazen uretara. Bestia Ardantzakua, lehelengua, zan epelagua ta batzuetan pitxarrakin, ba entretenu ta hantxe bete ta etxera. Segiduan igartzen zesten “hau ez da ura”. Askoz freskuagua zan bestia. Gero beste itturri bat eguan monjen onduan baina ura berua, epel-epela zan. Kañerixia itxuria eguan “a flor de.. esto” horregaitxik ba, epela. Pentsatzen dot deitzen zala “Barrenkua”, “Itturri barrixa” ta gero han onduan eguan erropak garbitzekua, labaderua. Han eguan labadero txiki bat, itturrixan aldamenian. Errekatxo txiki bat eguan eta handik juaten giñazen kamiñuetara, hara gora, Arrateko bidera.

6. Pantaleonen zakurraren beldur

- **Erref:** EIB-661/011
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:14:00. **Bukatu:** 00:15:35

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Ardantzako baserriaren izena ez du gogoratzen baina jabeak Pantaleon izena zuela ondo gogoan dauka. Zakurra askatzen omen zuen inguruan haurrak jolasean zebiltzala sumatzen bazuen. Bertako ortuetan afariketetan (gatzelerazko "cocinitas") jolasean aritzen zirela dio Adelak.</p>

Transkripzioa

Basarrixa eguan einda han, Ardantzan eguan bat, zelan zan... Pantaleon zan aitta, Bizente semia eta alabia zan, katalanakin ezkondu zana, Maria Pilar. Itturrixan gaiñian, ortu guztiak eguazanak danak, horretxan Pantaleonenak ziran. Juten giñazen haraxe, afariketan ibiltzera ortu onduan eta beti “Pantaleon!” han etorri eta antxitxiketan. Handik pasatzen giñan, hanka-puntetan beti, ze bestela txakurrak askatzen ebazen.

7. Ikasketak Frantzian burutu zituen

- **Erref:** EIB-661/012
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:15:35. **Bukatu:** 00:19:07

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

<p>Gerra Zibila hasi zenerako Irunen bizi ziren aita Hendaian lana aurkitu zuelako. Handik, amaren ahizparengandik hurbilago egotearren, Behobiara joan ziren bizitzera, eta ondorioz, Hendaia-ko eskolara joateko, hiru kilometro egiten zituen egunero oinez Adelak. Gerra zibila hasi zenean, Frantziara bidali zutela kontatzen du. Goi-mailako merkataritza ikasketak Baionan burutu zituen.</p>

Transkripzioa

Zortzi urte t'erdi neukazen Frantziara juan nintzanian eta etorri nintzan hamasei urte t'erdikin. Horregaittik ba, gerria eta dana pasau neban Frantzian. Aurretik juan giñan, "el año 33". Han eguan nere aittan anai bat. Asko-asko tratatzen genduan. Eurok etortzen ziran San Juanetan eta gero gu sarri juaten giñazen eta zelan bizi giñazen Irunen, ta gerria eguan ta nere aittak eitten zeban bihar armekin ta Eibarrera etortzen zan; eta nere anaiak amaittu eban eskola armerixia eta errez topau bihar zebala biharra eta, en fin, bixen bittartian nere amak topau eban biharra hotel batian. Gero, gerria zelan agertu zan, ba nere aitta, de "maestro armero" boluntario juan zan eta zelan gabetan eta juaten zan harutz, eta han hobeto egongo nintzala eta horregaittik juan nintzan, "agosto del 36" hara. Baina aurretik juaten nintzan, Behobiatik eta Irundik juaten nintzan ni eskolara Hendaiara, bai.

Lehelengo hille batzuk pasa nittuan Baionan. Gero nere aittak topau eban biharra han, Hendaian, ta juan giñan Irunera bizitzera baina nere tia bat, aman ahiztia, bizi zan Hendaian eta haren onduan egotiarren juan nintzan ni Behobiara bizitzera. Baina nik egunero hiru kilometro eitten nittuan eskolara juateko. Eta udan gure ama etortzen zan bazkarixakin, eta hantxe, arbolara bat eguan Hendaian eta hantxe bazkaltzen genduan hirurok. Gero "Comercio" ikasi neban hantxe Baionan, "al lado de la catedral, una Escuela Superior". Gaztia nintzan eta errez ikasi neban frantses, ta eskolara juaten nintzan, bueno Baionan ez, zan Anglet. Lehelengo bai, Baionan. Ta han segiduan ikasi neban frantsesa. Gero ba, gerria azaldu zan eta "el certificado de estudios" pasau neban Hendaian, ta zelan hau neukan ya ba preparatorixua ein neban para "la escuela superior", juan nintzan gero Baionara. Ein nittuan hiru urte komertzio ikasten.

8. Gerraosteko Eibar

- **Erref:** EIB-661/015
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:22:09

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

<p>1940. urteko San Tomas egunean itzuli ziren Eibarrera. Eibarren etxerik ez eta Ermuan bizi izan ziren hasiera batean; Txaltxazelaiko etxe batera etorriko ziren handik. "Regiones devastadas"-i esker, (Francoren diktadura garaian gerra zibilaren erruz suntsitutako eraikinak berreraikitzen laguntzeko sortutako erakundea. D.G.R.D.R.) Maria Angela kalean eta inguruan, batez ere, etxe asko eraiki zirela kontatzen du. 1941tik 1946ra bitartean "Aramberri hermanos" lantegian jardun zuen beharrean.</p>

Transkripzioa

Egon nintzan "del 30 de Junio del 41 al 1 de julio del 46 donde Aranberri Hermanos". Santo Tomas egunian, "el año 40" etorri nintzan eta orduan bizi giñan Ermuan. Eibarren ez eguan etxerik eta Ermuan bizitzera. Eta etortzen giñan Ermutik Eibarrera. Nere aman lehengusiña baten etxian bazkaltzen genduan laurok. Ordurako Maria Angela eta dana eguan einda, elixia egon zan inguruan, ta elixa barrenian be bai. "Regiones devastadas"-ekin ein eben etxe guztiak hor, sobre todo Maria Angelatik eta tio Ramon

bizi zan han, eta bai. Gu Ermura lehelengo ta gero etorri giñazen Txantxa-zelaira bizitzera. Gure aman lagun batek, bere gizonak ein eban han etxia ta gure ama ikusten eban zelan zestuakin ta etortzen zan eta “entresuelua” hangua esan etsan “hori Luzilandako” eta etorri giñazen.

9. Alejandro Telleriaren ihesa eta heriotza

- **Erref:** EIB-661/017
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:22:19. **Bukatu:** 00:24:35

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

<p>Gerra garaian, Alejandro Telleria ihesi ibili behar izan zela kontatzen du. Santanderretik Sestaora Adelaren aita lagundu zion, baina, Frantziara pasatzera zihoazela, Donostian harrapatu eta kartzelara eramán zituzten biak. Aitak irtetea lortu zuen arren, Alejandro bertan zendu zen. Familiari ez zioten sekula esan zein egoeratan hil zen ez eta non lurperatu zuten ere. "Gerrako kontuak", dio Adelak.</p>

Transkripzioa

Bai, gerran lehelengo juañ zan Santanderrera eta han, Santanderren harrapau eben. Ez, Santanderren gelditu zan eta nere aitta juañ zan, zeaittik asmatikua zan, ta juañ zan billa ta gero egon ziran Sestaon euron arreba baten etxian. Ein zittuen papelak ya Frantziara pasatzeko, autobusa eguañ Bilbotik urten eta Frantziara juateko, eta han eguañen mojak eta frailiak eta markes edo tituludunak eta nere aittak esan etzela “con estos habrá confianza de...” eta “sí, sí, sí” Donostian harrapau zittuen eta kartzelara. Nere aittak lehenau urten eban eta gure tio hantxe hil zan, kartzelan. Zelan diabetikua eta arritmia eta dana zeukan, sartu eben ospitalian. Txarrago. Ta gero, gure lehengusiña bat Burgosera de viaje de novios eta hantxe “como ha muerto como un perro, le hemos enterrado como un perro” esan esten. Iñok ez zekixan hil zala. Ezebe. Hantxe. Bueno... gerrako gauzak

10. Lehenengo soldata "Aramberri Hermanos" lantegian

- **Erref:** EIB-661/018
- **Iraupena:** 0:05:01. **Hasi:** 00:24:35. **Bukatu:** 00:29:36

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Gerraostean premia zegoela eta, nahiz eta neska izan, lanera joan behar izan zuen Adelak ere. Baina berak gustura ekin zion lanari. 1941-1946 bitartean "Aramberri Hermanos" lantegian jardun zuen. Ehizarako eskopetak eta banadiozko giltzak ekoizten zituzten han. Nominak, ordainketak, errenta aitorpena eta antzerako lanak egin behar izaten zituen Adelak. 1943. urtean gizarte-segurantza abian jarri zen unea eta hark ekarri zuen aparteko lana gogoan dauka.

Transkripzioa

Anaia eta ni, neskia. Giñazen bi. Aittak eta amak esaten eben, ba, biharrera neskia, zela? baina ni aspertu ein nintzan eta esan netsan: "edo taillarrera edo ofiziñara, baina nik biharrera juatia nahi dot. Aspertu eitten naiz bestela". Orduan ba, premiñia eguan eta danok biharrera juan bihar. Eta zelan lagunak ziran Aranberritarak, ba zera, nere aitta juan zan haraxe eta bialtzeko. Ta hala juan nintzan haraxe. Hantxe ein nittuan bost urte, Aranberri Hermanos-en. Aguirre y Aranzabal?, ba aldamenian, halan, altu bat. Han eitten ziran eskopetak eta gero, eitten eben "una llave, que hacía esto, de vanadio. Y solían vender a no sé qué... de herramientas". Horrek eitten ziran "con tubo hexagonal" eta eukien "muchas estrías", neurri desberdinetan. Aranberrin, ba ondo. Harek nahi izaten eben "que no les cogiesen por ricos", ez dakizu? beti neurri baten, hala, ez eben nahi agertzerik... holan. Horrek ziran, bueno Kristobal zan ixa itsua, baina jefiak ziran Simon ta Gregorio. Gero Eduardo zan, ba gaztiena, ta gaiñera hari pasau jakon, jausi ein zan hortxe "Carretera de Elgetan" eta ixa kojo geldittu zan. Han ibiltzen zan, ba eskopetak garbittu, ta enfin, holakuak eitten. Eskopetak ez zittuen asko eitten baina horrek llabiak, danak saltzen ziran. Gregorio ta neu ofizinan. Kontabilidadia neuk ez, azkenian jarri nintzan eitten zeoze baina ostian, ba gauza guztiak eruan, nominak, deklaraziñua, paguak ein bihar ziran, trimestrian, ta hau ta bestia, "Caja de Ahorros"-en pagatzen ziran... horretxek gauza guztiak nik eitten nittuan. Eta gero agertu zan "En septiembre del 46, creo que fue" ein bihar zan hilero-hilero, toda la lista de obreros, ze irabazi eban... ta gero Caja de Ahorrosera eruan. Horrek danak be, inpuesto, fakturak... eta horrek danak nik eitten nittuen. Ta gero, eskopetiakin, juan bihar izaten zan kuartelera permisua eta firmatzera. Rekadistak eruaten zittuan baina nik papelak eitten neban.

11. "Aramberri Hermanos" lantegiaz: eraikina eta ekoizpena

- **Erref:** EIB-661/020
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:31:30. **Bukatu:** 00:33:53

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

"Aramberri Hermanos" lantegia nolakoa zen deskribatzen du. Bi pisuko eraikina zen: lehenengo pisuan tailerra zegoen eta goiko pisuan bulegoak eta biltegia. Eskopeten "pulimentua" (leunketa prozesua) kanpoan, Zamakolak egiten ziela kontatzen du. Fabrikazioan ezinbesteko diren beste hainbat pieza eta prozesu ere kanpora bidali edo kanpotik ekartzea oso ohikoa izaten zen orduan, eskopeta-kaxen "pikaduria eta txarola" esaterako.

Transkripzioa

Ba piso bi eukazen. Lehelengo piso bat ein eben ta han eguazen makinak eta... dana eitten zan han, eskopetia be bai. Ta gero beste piso bat ein eben ta goixan eguan eskopetia, ofizinia ta almazena. Ta gero pulimentua eguan aldamenian. Ha zan bera, eitten eban Aranberrindako lana baina beste batzuek be bai. Independentia zan. Gehixena eskuz eitten zan. Gaiñera kaiñoiak einda ekartzen ziran ta kulatak be bai ta gero han ba “el raspao aquél que había que hacer”. Horrek danok erosi eitten ziran. Baskulia be, “en bruto” erosi ta gero ein. Kulatian pikaua andrak eitten eben generalian. Nere aman lehengusiña batzuek horixe eitten eben. Txarola be bai, kulatiana. Batak txarola ta bestiak pikaduria. Generalian etxietan eitten eben. Gizonak be eitten eben baina, andrak asko.

12. Hogeï duroko soldata eskasa hasieran

- **Erref:** EIB-661/022
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:34:18. **Bukatu:** 00:36:20

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

<p>Hogeï duro irabazi zituen bere lehenengo soldatarekin. Egindako negarraldia oso ondo gogoratzen du, behar handia zegoen etxean eta. Gerraostean guztia galdu zutela kontatzen du; aita Burgosen espetxeratuta, anaia Kordobako kontzentrazio-esparruan, ama Valentzian eta bera Frantzian zeudela Eibarren zituzten ondasunak galdu zituzten.</p>

Transkripzioa

Ene, ein neban negar... Ni jua nintzen Aranberrinera ta hogeï duro emon esten lehelengo hillian. Baina, etxian premiñia eguan. Ez geunkagun ezer, dana galdu gendun, Behobian laga genduan ta gero etorri giñazen Eibarrera eta ez geunkan ezer. Hango alkatia edo alkate modukua eguana ba, lehelengotik esaten eban, “ez, etorriko dira ta laga” baina gero ya aillau zan papel hori, esaten ba entregatzeko dana, muebliak eta hori eta ordutik ezebez. Ta nere aitta kartzelan, Burgosen, ta nere anaia “en campo de concentración en Córdoba”, ni Frantzian ta gure ama Valentzian lehelengo. Ta gero, etorri zan, ta hartu eban tifusa, edo ez dakit zer eta... en fin. Ta menos mal zeukazela, aitta, eta bere ama ta hoietxekin basarrira juaten zan ta, en fin. Ta gero ba etorri zanian nere aitta ta nere anaia, orduantxe neu be etorri nintzan. Nahi eben danok egotia juntu.

13. Soldaten ordainketei buruzko azalpenak

- **Erref:** EIB-661/023
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:36:20. **Bukatu:** 00:37:40

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Soldatak astero kobratzen ziren hasiera batean. Gero hamabost egunean behin eta azkenik hilabetero kobratzen hasi ziren, baina aurrerapen bat eskuratzeko eskubidea izaten zuten beharginek. Aurrera-n lanean hasi zenean ez zegokion Adelari nominak egitea baina, arduraduna gaixotu eta ugazabek Adelak berak egin zitzakeela ikusi zutenetik, bera arduratu zela kontatzen du.

Transkripzioa

Ofizinuak hilian kobratzen gendun. Ostian, astero. Gero hasi zan hamabostian behin, ta gero hillero. Orduan be eitten zan Aurrera-n, ta beste leku askotan, antizipua emon ta gero hillan azkenian ba nominia. Baina lehelengo, Aurrera-n hasi nintzanian ni, "día 15 y día 30" pagatzen zan. Eitten genduan, Maria Jesus, zure aittitta ta nere artian nominak. Ta zure aittitta juan zan behin, oso sarri juaten zan, Orfeón Donostiarrakin Vigora edo ez dakit nora. Ta Juanitok esan estan "Adela, éste no va a venir para la nómina. ¿Ya podrá usted hacer la nómina?" eta nik, "sí, sí" ta ein neban. Zure aittittak esan estan, "Adela, ¿la nómina?", eta nik "ya está hecha". Ez zeban gehixago ein! Nik ein neban!

14. Ama izan bezperara arte lanean

- **Erref:** EIB-661/025
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:39:08. **Bukatu:** 00:41:55

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Lan baldintzei buruz ari da hizketan. Astelehenetik larunbatera bitartean egiten zen lan garai hartan. Adelaren kasuan, ama izan bezperaraino lanera joan zela kontatzen du: lantokiko atea zabaltzen ari zela erdiminak igarri eta itzuli zen etxera. Nahiz eta hiru hilabeteko amatasun-baja zegokion, etxean aspertu eta lanera denboraz aurretik itzuli zela kontatzen du.

Transkripzioa

Astelehenetik zaturaino. Denpora luzian. Pentsaizu, nik euki nittuanian bikixak, euki nittuan "el 8 de Enero", "día 6" izan zan "día de reyes", jaixa. Hurrengo egunian, zapatua, biharrera ta hurrengo egunian euki nittuan bikixak. Bestiakin be, nausixakin be, jaixo zan "el 26 de Febrero" ta "24 de Febrero" izaten zan Aurrera-n jaixa modukua, "consejo de administración" izaten zan ze ha zan "el día que se fundó" ta orduan, izaten ziran ba "reunión de todos los socios". Orduan ba, kunpliduta zela neguan ba, ez nintzan juan. Baina, hurrengo egunian banindoian, pretauta neguan ta banindoian. Amak esaten estan "ofizinan euki bihar dozu umia!". Banindoian, zabaldu neban atia ta sentidu neban zeoze, ta etxera. Hurrengo egunian euki neban umia. Orduan hiru hillabete emoten zittuen baina ni aspertu nintzan etxian ta gaiñera ez eban eitten egualdirik umiakin urtetzeko. Beti eurixa, edo hau edo bestia, hotza... ta ya, abrilleko lehelengo egunetan juan nintzan biharrera. Ta bestiekin be bai. Hiru hillabete egoten ziran; nahi bazenduan aurretik hilabete eta erdi hartu ta gero bestia. Orduan baeguan. Seguro de enfermedad zan. Eitten zanian likidaziñua, orduantxe etortzen zan.

15. "Segituan koloreak ateratzen zitzaizkidan"

- **Erref:** EIB-661/027
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:43:00. **Bukatu:** 00:45:55

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

<p>Oso gustura jardun izan zuen Aurreran lanean, familia handi bat iruditzen zitzaion hango lantaldea. Zuzendaritzaren egitura eta lankideak izendatzen ditu. Gaztea eta xaloa zen Adela, hainbat anekdota kontatzen ditu honen inguruan.</p>

Transkripzioa

Aurrera-n ofizinan behintzat ondo pagatzen zan. Ni pozik egon nintzan. Zelako ondo. Familixa bat giñan. Giñazen, lehelengotik Maria Jesus, Ramon, Juanito, Antonio ta ni. Lehelengotik honek. Gero, ya sartu zan Iñaki Iñarrairaegi baina ha sartu zan Juanito hil zanian ta zure aittitta jarri zan gerente. Mahai batian egoten ziran Juanito ta zure aittitta. Gero eguan nere mahaixa ta eskribitzeko makiñia eguan beste mahaixan ta gero zan Ramon. Gaiñera Ramon zan ule-hartzailia ta ni nintzan, "mika" bat ta segiduan koloriak urtetzen esten. Ramonek esaten zestan "Baños de sol, crema Nivea". Gaiñera, lehelengo hillabetian juaten nintzen etxera eta "... ay, ... eta ay...." egoten nintzan suspiratzen ta nere aittak esaten zestan "ez bazare konforme, urten" ta nik "ez, ez, konforme nago". Gure amak topau eban Ramonen suegria ta harek esan zetsan "¡están de contentos!" ta orduantxe hartu neban nik harnasia. Orduantxe ya neu izan nintzan, ez dakizu?. Gero ya, harek koloriak pixkaka-pixkaka jua jatezen ta orduan hasi nintzan kontestatzen, ta hau esaten ta bestia esaten... Bueno, 22 urte neukazen baina ez jatan gustatzen han aurrian ta egotia, badakizu? Nitzan, esaten detsut, koloriak segiduan, batek ez nebana ezagutzen zeoze esan, ta ya koloriak urtetzen zesten.

16. Aurrera galdategiko zuzendaritza eta urteurrenaren ospakizuna

- **Erref:** EIB-661/029
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:46:16. **Bukatu:** 00:49:53

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak

Laburpena:

<p>1948. urteko zuzendaritzako kideen izenak dakartza gogora. urteurrena ospatzeko egindako bazkarian gertatutako anekdota kontatzen du.</p>

Transkripzioa

Han soziua asko eguazen. Pako Anitua be bazan "del Consejo de Administración", ta ha be andriaittik zan soziua ta... sozio mordua eguan. Baina gehixenak, ein ebenak hori ziran Iñarrairaegi. Baina, ni jua nintzanian ya Gregorio erretirauta eguan. Ta zan, Pako, tio Pako esaten

etsen, ta Juanito. Ha zan el 48, “al año de morir mi padre”. Nere aitta hil zan “el 10 de mayo del 47”. Ta ha zan el “4 edo 5 de mayo del 48”. Orduan zure aittitta [Antonio Sarasua], ez dakit, nombrau edo ein eben baina behintzat, gerente-gerente nombrau eben Pako, baina “vice-gerente” edo lo que sea zan zure aittitta. Ofizinako jefia zure aittitta. Ta gero sartu ziran Pedro Mari Iñarrairaegi eta Jose Mari Etxeberria. Jose Mari etxeberrria zan Heraclio Etxeberrian semia ta, Heraclio Etxeberria zan el presidente del consejo. Ein genduan, ez dakit ete zan 100 urte edo 75 baina ein genduan, sozio guztiak eta bazkarixa. Gu, ofizinakuak, eta zelan bihar dana ein genduan, juan ginan Txominenera. Baina zer! kobrau eban nahi ebana. Esan eban, “si sobra...” boda bat eguan, “si sobra ya traeremos, lo demás no hay” ta gero kobrau eban nahi ebana. Pakok gero hasarre ein eskun. “¿cómo? si hemos comido sobras” guk. Zelan euken... Pakok eitten etsan “los aros para la encimera” Aurrera-n eta kobratzen zan, ba... nahi ebana ta bestiak be... ba nahi ebana!

17. Eraikinari buruzko azalpenak

- **Erref:** EIB-661/030
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:49:53. **Bukatu:** 00:53:40

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarreneko lantegiak

Laburpena:

<p>Aurrera galdategian lantzen ziren materialei eta prezio desberdinei buruz ari da: "colado" edo "maleable" izan zitezkeen galdategian ekoizitako produktuak. Eraikinen argazkiak ikusten dihardu. Eraikineri "Fundidores"-etik (Urtzaile kalea, egun) sartzen zela kontatzen du, bulegoetara aldez, Bidebarrieta kaleko atetik. 1946. urteko ekainaren 3an inauguratu zituztela gogoratzen du.</p>

Transkripzioa

- Beti izan da fundiziñua, “colado y maleable”. Fakturak eitten nittuan eta horregaittik dakit, “colado y maleable”, prezio diferentia eukan. Lehelengotik gaiñera eguan “precio estipulado por el Gobierno” ta gero pasatzen zan, “en una hojita”, diferentzia pasatzen zan ta kobratzen genduan.

- Beti leku berean egon da?

- Bai, lekua bera zan. Lehelengo hau zan, gerra aurrekua horixe. Ez dakit ezautu neban hala, edo erretratua ikusi dotelako dakitten. Baina hau bai, hau ezautu neban. Oingua dagon aurretik hau izan zan. Ofizinak seguramente honek ziran eta, Pako ez dakit baina Gregorio seguramente hor bizi izan zan. Pakok eukan, oindio badago, etxe kuadrau bat, Aurrera-n onduan, Bidebarrixetan, barruan etxe bat eta ha zan Pakon andriana, Gomez. Pako behintzat gero hantxe bizi izan zan. Ta hamen, seguramente, Gregorio bizi izan zan. Alde hau Bidebarrieta, ta hau Fundidores. Ofizinara hemendik, atia badago ba? Ni sartzen nitzan handik, ta fabrikara fundidores-etik. Han garajiak eta badare ba, handik. Aurretik ez dakit baina ofizinak orduantxe, el 3 de junio del 46 inaugurau ziran. Akordatzen naiz gero, hamabixetan ekarri eben, “volovanes” eta holakuak. Sekula be jan barikua. Jatia asko gustatzen jatan ta Juanitok esan estan “Adela, no habla nada”, “Es que comiendo no se puede hablar”. Zan ofizina bat, “el cielo”. Dana barrixa zan.

18. Instalazio modernoak bulegoan

- **Erref:** EIB-661/031
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:53:40. **Bukatu:** 00:56:45

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

<p>Bulegoen eraikinari buruzko azalpenak ematen ditu. Instalazio eta gela desberdinen antolamendua. Kontseilu gelan zeuden egurrezko mahai zoragarria eta kristalezko argi-armiarma gogoan ditu. Enpresa ixtean, desagertu egin zirela kontatzen du.</p>

Transkripzioa

Gaiñera eguazen telefonuak, zuretik bestera deitzeak, ta handik kalera deitzeak, ta bueno! Dana “novedad” mahaixak be bai, ta lekua, kalefaziñua. Geunkagun giltza bat, bakarra ta ate guztiak zabaltzen zittuen. Behekua, sartzen zana, Bidebarrixetatik, ta gero ofizinakua, ha ez zan ixten. Ta gero eguan, takillia. Sartzen zan eta takillia. Han eguazen ate bi: batetik sartzen zan ofizinara, ta bestetik komonera. Han komonan aurrian, leku txikixa, eguazen lau ate. Bata zan “despacho del gerente, de Pako”; bestiak ziran, han parian eguazen komunak, ta bestia sartzen zan taillarrera. Ta bestia zan ofizinatik kanpora juatekua. Gero eguan “salón del consejo de administración”, mahai bat! azpizan dana taillautakua. Horrenbestekua! Eukan pixu bat harek. Sillak be, hainbestekua ziran, ondo adornauta. Ta gero eguan “una araña”, desaparezidu ein zan! Jaleua ta gero jua ginan ta bai mahaixa eta bai hori falta ziran, ez dakigu nundik atara zebe, ze ni akordatzan naiz sartzeko zelan ibili ziran! Hori mahaixa ein eben Deban. Deban eguan, eibartarra zan ebanistia, ta haretzek. Baina zan, “maravilla”.

19. Gainbeheraren arrazoa

- **Erref:** EIB-661/033
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:57:21. **Bukatu:** 00:59:39

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

<p>Estatuko galdategirik onena zela esaten zen garai hartan. Lanak ondo eta txukun egiten zirela kontatzen du Adela. 1978. urtean ordea, gainbehera etorriko zen. Hobe beharrez, galdategia lekuz aldatzeko proiektua abiarazi zuten: makina berriak eta fabrika eraikitzeko terrenoa "Villarealen" (Legutio) erosi eta esku-dirutan ordaindu ziren. Hurrengo urtetik aurrera galerak edukitzen hasi ziren.</p>

Transkripzioa

Nik Pakori entzunda, behin Bilbora jua zanian, batekin juntu zan eta harek esan estan Aurrera zala “una de las mejores” edo “casi la mejor fundición de España”. Ondo eitten zan biharra, dana ondo-ondo, ta gero desperdizio asko. Ta hor pasau zan, neretako pasau zan, ipintzera zoiazen beste makina batzuek eta, Villarealera juatia ta han erosi, makinak erosi harako ta pagau ziran danak eskura, “takata”. Ta hurrengo urtian, “tokoto”. Empezaron las perdidas y se acabó. El 77, por ahí. 77-78, 78 emezaría. 77 a finales, ya 78n ikusten zan... ez dakizu? Villarealera jua zan baina han be urte bi edo ein zittuan. Zelan transporte ta hau ta bestia han hobeto izango zan, horregaittik jua ziran, ta makina batzuek barrixak, ta fundiziño hobia. Bat bakarrik geldittu zan hemen, fundiziñua eruete ebana, haxe geldittu zan, baina harek be ganora gitxi eta neri particularmente no me gustaba.

20. Erretiroa hartzeko ordaindu egin behar

- **Erref:** EIB-661/034

• **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:59:39. **Bukatu:** 01:00:48

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Galdategia Legutiora tokiz aldatu zenean, Adelak lan egiteari utzi zion. Erretiroa hartzeko adinik ez zuenez, langabezia eta bajak konbinatu behar izan zituen. Hala ere, azken hilabeteak bere poltsikotik ordaindu behar izan zituela kontatzen du.</p>

Transkripzioa

Ez neukan jubilatzeko sasoirik oindiño. Neukazen 55 urte t'erdí. "Ta dos años de paro", gero bajak hartzen nittuan baina, bost hilabete pagau ein bihar izan nittuan, "sesenta y cinco mil pesetas, que me dolieron"... dana batera kendu esten. Bakizu zer zan hori? zeozer hartu bihar zenduala ta hori ikusi... pentsaizu! ta ziran, con paro y todo, 46 años de cotización, ta pentsaizu, pagau ein bihar.

21. Emakumezkoak lan munduan

- **Erref:** EIB-661/035
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 01:00:48. **Bukatu:** 01:03:01

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Soldata ona izan zuen eta konforme jardun zuen lanean. Gizonek, gizonezko izateagatik, zertxobait gehiago irabazten zutela dio hala ere. Garai hartan ezohikoa izan arren, ezkondu ostean ez zion lan egiteari utzi nahi izan Adelak. Ordainsaria ere ematen omen zieten emakumeei baina garbi zuen Adelak lanean jarraituko zuela.</p>

Transkripzioa

Ni aillau nitzan kobratzera 1250 pezeta ta gizon batek igual ez zeban hori kobratzen. Ondo konsiderauta egon nintzan. Normalian gizonak pixkat gehixao pagatzen ziran, ta nik gaiñera esaten neban "bueno, nik gizona daukat irabazten eta..." ez dakizu? ez dot esango gitxiago irabazteaittik baina, horrek, gizonak dira ta... konformau eitten nitzan. Baina nik biharra eittia nahi neban beti, hori buruan nekan, Aranberrinian egon izan banintza be, nik biharra eittia nahi neban beti. Gero ama neukan, alarguna eta oindiok sasoiko eguana ta haretzek hazi estazen hiru umiak. Lehelengo euki nebat bata eta handik hiru urtera euki nittuan bikixak. Orduan biharra lagatziarren pagia emoten eben, "tantos años, tantos meses" baina ni ez. Euki banittuan umiak ta ez banittuan euki be bai.

22. Emakumeek ere jarduten zuten galdategiko lanetan

- **Erref:** EIB-661/036
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:03:01. **Bukatu:** 01:04:12

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Galdategian ere bazeuden hamar emakume inguru lanean. Piezak garbitzeaz arduratzen ziren normalean.</p>

Transkripzioa

Han biharrian taillarrian bai. Hamar edo emakume egongo ziran. Garbittasuna edo piezak garbittu. Ni gitxi jua nintzan , ze han hautsa ta hori egoten zan ta ez nintzan jaisten. Ta andra batzuk ziran gaiñera, ta mihiña... hori, ta ez dakizu, esaten zittuen gauza batzuk... baina bai, hamar edo halakoren bat egongo ziran. Eibartarrak be bai, eibartarrak be egongo ziran. Lehelengotik eibartarrak, gero ya gallegak ta hau ta bestia. Fundiziñuan be, pentsatzen dot andraren bat edo bi egon zirala.

23. Josteko makinak egiteko piezak

- **Erref:** EIB-661/038
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:04:50. **Bukatu:** 01:06:20

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

<p>Tailer mekanikoa ere egon zen Aurrera-n. Juan Andres Berraondo izan zen bertako arduraduna. ALFA, eta batez ere, SIGMA ziren galdategiko bezero nagusiak. Josteko makinak hankak pieza zailak ziren eta asko akastunak ateratzen zirela kontatzen du.</p>

Transkripzioa

Taillar mekanikua be baeguan. Andres Berraondo zan jefia. Ni sartu nintzanian bai ta han eguazen ta, lehendik be egongo zan. Lehelengo ALFArako eitten zittuan piezak. Gero ALFAk ipini eben beria ta ALFArako gitxi baina SIGMArako asko. Baina gero pasau zan ba, fundiziñuak hasi ziran zabaltzen, askoz merkiago Aurrera baino. Ta SIGMAk be ein eban, inork ez etsena eitten ba, hankak, hankak ziran txarrak eitteko ta horrek eitten ziran Aurreran. Baina, urtetzen eben askok defektuosos, ta asko galtzen zan. Pieza txar danak Aurrera-ra, baina. Bartzelona, Valentzia... ixa España guztirako eitten ziran!

24. Sukaldea eta jantoki zerbitzua langileentzat

- **Erref:** EIB-661/041
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:07:45. **Bukatu:** 01:09:03

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Nahiz eta langile asko bertakoak edo ingurukoak ziren, egunero Areetatik

(Bizkaia) etortzen zen gazte bat gogoan dauka. Sukalde eta jantokia ere jarri zuten aurrerago; bere amak jarduten zuten janaria prestatzen.</p>

Transkripzioa

Bat etortzen zan, gaztia zan, Las Arenasetik, egunero-egunero biharrera Aurrera-ra. Ta beste bat, etortzen zan astero, Alsasuatik. Beste guztiak, Ermua, Zaldibar.. en fin. Baina hori, gaztia zan gaiñera, mutil majua, ta etortzen zan Las Arenasetik egunero-egunero-egunero bazkarixakin Aurrera-ra. Gero, Aurreran jarri zittuen sukaldiak, bihargiñak han eitteko. Ta nere ama egon zan han bazkarixak eitten. Sukaldia ipini eben ta eurok ekartzen eben, batzuk berotzeko ta beste batzuk eitteko. Ehun da piko langile

25. Bizpahiru egunerako kontratuak

- **Erref:** EIB-661/042
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 01:09:03. **Bukatu:** 01:10:00

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Herri batetik bestera, Galiziatik Bartzelonara iragaitzaz zebiltzan bidaiariak egun gutxi batzuetarako kontratatzen ziren Aurrera-n sarritan. "La casa de beneficencia" zela dio Adelak, edonor laguntzeko prest agertzen zirela beti. Lan handia ematen zioten Adelari lanaldi partzialeko kontratu eta nomina haiek.</p>

Transkripzioa

Baina zan "La casa de beneficencia" ze beti egoten zan biharra ta batzuk igual eskian edo zoiazen igual ba Galiziatik Bartzelonara edo, en fin, ta hemen de paso, eta etortzen ziran Aurrera-ra bihar eske. Biharrian egoten ziran, hartzen eben antizipua ta jua eitten ziran. Lagatzen eben dirua kobratzeko, tontuak ziran! Hiru egun ein ta beste leku batera jua ta.. eukitzen neban nik bihar bat pertsonalana eitten! Baina ondo eitten neban.

26. Katetoria desberdinak eta soldatak

- **Erref:** EIB-661/044
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 01:10:48. **Bukatu:** 01:12:40

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>1946. urtean mutualitatea jarri zen abian eta honekin batera langileen katetoria eta oinarrizko soldatak finkatu ziren lehenbizikoz. Katetoria desberdinak eta bakoitzak kobratzen zuena zerrendatzen ditu Adelak. Hilabetean bitan kobratzen zuten hasiera batean; aurrerakin bat eta soldata hilabete amaiera ondoren.</p>

Transkripzioa

El año 46 ya jarri zan Mutualidad de Metalurgia, lo que es ahora ... esto. Ta

orduan ba ya jarri zittuen basiak: peón 14 pesetas, especialista de segunda 15´40, horrek danakin akordatzan naiz, al especialista de primera 16 con 30, al oficial de tercera 17´50, y al oficial de primera 22. Ta gero ofizinakuak, la que era un poco esto, ba... 650 edo, en fin, igo eitten zan. Lehelengo eitten zan hamabostian ta hogetamarrian, ta gero, ba, antizipua emon ostian, hillabetera. Pagatzen zan eskura, sobrian. Pentsaizu, mas de un millón eskuan! pentsaizu, ta norberana ez! Banco Guipuzcoanokin eitten genduan biharra.

27. Ardantza kaleko txokolategia

- **Erref:** EIB-668/002
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:02:01. **Bukatu:** 00:03:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Ardantza kalean kokatzen zen Arizmendiarieta familiaren txokolategiaz dihardu. Txokolateaz gain, azukre-koxkorrak egiten zituztela dio.

28. Goi mailako ikasketak Baionan

- **Erref:** EIB-668/003
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:03:24. **Bukatu:** 00:05:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

1933. urtean Frantziara lekualdatu zen Adelaren familia. Irun eta Behobian ere bizi izan zirela kontatzen du. Gerra Zibila hasi zenean, Baionan bizi zen osabaren etxera bidali zuten. Goi-mailako merkataritza ikasketak burutzeko aukera izan zuen bertan. Aise ikasi zuen frantsesa.

29. Itzuleran suntsituta aurkitu zuen Eibar

- **Erref:** EIB-668/004
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:05:32. **Bukatu:** 00:07:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

1940. urteko uztailan amaitu zituen merkataritza ikasketak. Ordurako, gerra zibilaren ondorioz sakabanatuta egon ziren senideak, elkarrekin zeuden berriz eta Adelak ere Eibarrera bueltatzeko aukera izan zuen. Etxerik ez Eibarren eta Ermuan bizi izan ziren lehenengo hilabeteetan zehar. Eibarko etxe eta kaleen egoera txarraz dihardu. Suntsituta zegoen, dena harria zen.

30. Emakumezkoa izan arren lantegira nahi zuen

- **Erref:** EIB-668/005
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:07:40. **Bukatu:** 00:10:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

1942. urtean Eibarko Txantxa zelaian lortu zuten etxea. Ordurako, Aranberri Hermanos lantegian ziharduen Adelak. Nahiz eta gurasoei ondo iruditu ez, garbi zuen Adelak lan egin nahi zuela. Garai hartan ez zen oso ohikoa emakumezkoak lantegietan ikustea. Egoera horri buruz hitz egiten du.

31. Aranberri Hermanos lantegian izan zuen lehen aukera

- **Erref:** EIB-668/006
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:10:51. **Bukatu:** 00:12:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Eskopetak eta banadiozko giltza hexagonalak ekoizten ziren Eibarko Aranberri Hermanos lantegian. Bista Alegre kalean kokatzen zen bi pisuko eraikina. Administrazio lanak egiteaz gain, piezak garbitzen ere jarduten zuela kontatzen du.

32. Lantegia eta bulegoari buruzko azalpenak

- **Erref:** EIB-668/007
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:12:55. **Bukatu:** 00:15:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Aranberritarrak jende apala zirela dio Adelak. Bulegoa eta lantegia nolakoak ziren kontatzen du. Gregorio Aranberrirekin egoten zen bulegoan; estimu handitan zuen Adela. Bost urtez jardun zuen lantegi hartan beharrean.

33. Aurrera galdategia

- **Erref:** EIB-668/008
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:15:05. **Bukatu:** 00:19:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Fundizioa

Laburpena:

1946. urtean hasi zen Eibarko Aurrera galdategian lanean. Nola sartu zen kontatzen du. Nahiz eta irekiera urtearekin ez den oroitzen, Eibarko lantegi zaharrenetarikoa zela dio. Bulego berrien inaugurazioarekin batera hasi zen Adela Aurrera galdategian lanean. Bulegoari buruzko deskribapen zehatza ematen du. Juan Bautista Gisasola eta Pako Iñárrategi ziren gerenteak orduan. Gainontzeko langileak ere izendatzen ditu.

34. Ezkondu ostean lanean jarraitu zuen

- **Erref:** EIB-668/009
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:19:13. **Bukatu:** 00:19:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Nahiz eta ezkondu ostean lana lagatzea zen ohikoena, Adelak ez zuen gainerako emakumeek bezala egin. Lanean jarraitu nahi zuela oso garbi zuen.

35. Aurrera fundizioko bulegoen inaugurazioa

- **Erref:** EIB-668/011
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:21:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Fundizioa

Laburpena:

1946. urtean bulegoak gehitu zizkioten eraikinari. Lehenengo solairuan kokatzen zirela kontatzen du; beste bi solairu zeuden gainean: biltegia eta sukaldea. Inguruko herrietatik langile asko etortzen zen lanera.

36. Lana soberan zegoen Aurrera fundizioan

- **Erref:** EIB-668/012
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:21:46. **Bukatu:** 00:22:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Boom industrialak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Lana soberan zegoen Aurrera fundizioan. Kanpotik etorritako beharginak bertan topatzen zuten lana nahiz eta, egun gutxi batzuen buruan, lana utzi eta beste lantegi "garbiago" batzuetara joaten ziren. Langile mugimendu honek administrazio lan ugari zekarkion Adelari. 100 langiletik gora zegoen fundizioan garai hartan; bulegoan bost pertsona aritzen ziren.

37. Fundizioko lan mota eta produkzioari buruzko azalpenak

- **Erref:** EIB-668/013
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:22:56. **Bukatu:** 00:24:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarreneneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Fundizioa

Laburpena:

Aurrera fundizioan lan mota desberdinak zeuden: "moldadoreak", "pulidoreak" esmerilean jarduten zutenak, etab. Pieza desberdinak ekoizten zituzten baina batez ere, SIGMA lantegirako josteko-makinen hankak egiten ziren. Lan zaila izanik, gainontzeko galdategiek uko egiten omen zioten pieza hura ekoizteko proposamenari. Aurrera-z gain, La Estrella eta Lasa y Azkoaga fundizioak zeuden Eibarren.

38. Otsailak 24, akziodunen eguna

- **Erref:** EIB-668/015
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:26:40. **Bukatu:** 00:28:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarreneneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Fundizioa

Laburpena:

Otsailaren 24an ospatzen zen akziodunen eguna. Irabaziak banatzen ziren meza ostean. 40 akziodun inguru zeudela kontatzen du. Nahiz eta sozietate anonimoa (SA) izan, familiako negozio kutsua izan zuen betidanik.

39. Administariaren eginbeharrak

- **Erref:** EIB-668/018
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:31:07. **Bukatu:** 00:32:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Fundizioa

Laburpena:

<p>Bere eginbeharren artean, fundizioarenak ziren etxebizitzetan bizi zirenei alokairua kobratzea zegoen. Nominak egiteari buruz, Antonioren lana izatetik Adelaren ardura izatera nola pasa zen kontatzen du.</p>

40. Kategoriaren arabeko soldata

- **Erref:** EIB-668/020
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:32:51. **Bukatu:** 00:34:34

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak

Laburpena:

Langile bakoitzari, kategoriaren arabera zegokion soldata: peoia, espezialistak, ofizialak, etab. Hasiera batean hilabete bakoitzaren erdian eta amaieran kobratzen zen; gerora, hilabete bukaeran. Garai hartan, soldataren aurrerakinak eskatzea oso ohikoa zela dauka gogoan.

41. Gerraosteko premia

- **Erref:** EIB-668/021
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:34:34. **Bukatu:** 00:35:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Behobian zituzten ondasun guztiak galdu zituzten gerraren ondorioz. Gerraostean, aita espetxeratu egin zuten eta amak gaixotasun larria izan zuen. Premia handia bizi izan zuten garai hartan.

42. Iragaitzazko langileak Aurreran

- **Erref:** EIB-668/022
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:35:27. **Bukatu:** 00:37:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraostean kartzelan egon izanak ez zion aitari lana aurkitzeko garaian trabarik eragin. Guztientzat adina lan zegoela kontatzen du Adelak. Askotan, iragaitzaz zeuden pertsonak hartzen ziren fundizioan beharrerako. Pare bat edo hiru egunez lana egin eta, soldata aurreratzeko eskatu ostean, lana utzita bideari jarraitzen zioten.

43. Estatuko fundiziorik hoberena

- **Erref:** EIB-668/023

- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:37:05. **Bukatu:** 00:38:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Fundizioa

Laburpena:

<p>Estatu mailan fundizio onena izatearen ospea zuen Aurrerak (Eibar). Hala ere, garestia zen eta konpetentziak kalte handia egin ziola kontatzen du.</p>

44. Fundizioaren gainbehera

- **Erref:** EIB-668/024
- **Iraupena:** 0:04:19. **Hasi:** 00:38:26. **Bukatu:** 00:42:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Fundizioa

Laburpena:

<p>Eraikinaren lehen berritze lana (40. hamarkadan) eskura ordaindu zela gogoan dauka. 1979. urtean Legutiora lekualdatu zenerako egoera nahiko kaskarra zen. Zorrek itota, handik bi urtera itxi zen Aurrera fundizioa.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com